

Salmonellaren kontrola oiloetan eta osasun publikoan duen eragina

Salmonelosi da Europar Batasunean (EB) elikagaien bidez transmititzen diren gaixotasunetan bigarrena. Lehenengoa campilobakteriosia da. 2017an, estatu kideek gizakietan 91.662 salmonelosi-kasu jakinarazi zituzten.

Hainbat urtetan kopuruak behera egin bazuen ere, azken bost urteotan mantendu egin da salmonelosi kasuen kopurua. 2017an kopuruak zertxobait behera egin bazuen ere (94.425 kasuetatik 91.662 kasuetara), **2008an hasi zen beherazko joera geratu egin da**. Datu horiek eta beste batzuk txosten honetan azter daitezke:

Hain zuzen ere gelditze hori dela eta, EFSAK zientzia-iritzi bat argitaratu du. Horren arabera, abeletxeetan oilo erruleetan **Salmonellarako helburu zorrotzagoak jartzeak gizakien artean jatorri hori duten kasuak murrizten lagunduko luke**. Honako hauek dira helburu horietako batzuk:

- Gaur egun, EBko herrialdeek % 2ra murriztu behar dute zenbait *Salmonella*-motak kutsatutako **oilo erruleen** kopurua. EFSAk uste du xede hori % **1era murriztuz gero, gizakietan % 50era murriztuko lirakekeela salmonelosien-kasuak**.
- **Oilo ugaltzaileei** dagokienez, gaur egun % 1eko xedea dago ezarrita giza osasunerako garrantzitsuak diren bost *Salmonella* motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium*, *Salmonella infantis*, *Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*). **EFSAk gomendatzen du xedea mantentzea hiru motatarako (*Salmonella enteritidis*, *Salmonella typhimurium* eta *Salmonella infantis*) eta beste biak (*Salmonella virchow* eta *Salmonella hadar*) ordezte**a gaur egun giza osasunerako garrantzitsuagoak diren beste mota batzuekin.
- Ostatu-sistemei dagokienez, ondorioztatzen da **Salmonellaren presentzia txikiagoa dela ostatu-sistema alternatiboetan hazitako oiloetan kaiola-sistemetan hazten direnetan baino**. Hala ere, arrazoiak ezin dira erabat azaldu, ez baitago zientzia-ebidentziarik.

Trikinaren aurreko kontingentzia Planaren eguneratzea

Joan den 2018ko abenduaren 19an, AESANeko Batzorde Instituzionalak onetsi egin zuen **Trikinaren aurreko Kontingentzia Plan Nazionalaren aldaketa**. Planaren xedea da nazio mailako jarduera-plana ezartzea, animalietan edo haragian Trikina antzemanaz gero edo horietan Trikina egon daitekeela susmatuz gero.

Eguneratze honen berritasun nagusiak alderdi hauei buruzkoak dira:

Neurriak abeltzaintza-ustiategietan:

Basa-animalietan trikina antzematen denean, Animalien Osasunaren arloko agintari eskudunek egiaztatu egin beharko dituzte kutsa daitezkeen eta Trichinellarekin kontaktuan egon diren **animalien ustiategietako biosegurtasun-neurriak**.

Neurriak lursail zinegetikoetan:

50/2018 Errege Dekretua (ehizako azpiproduktuen kudeaketari buruzkoa) **ehiza larriaren beste modalitate batzuetan ere aplikatuko da**, baldin eta ehiza-barrutiko animaliek positiboa ematen badute.

Dekretua, gutxienez, kutsatutako animaliak antzeman eta handik aurrera geratzen den ehiza-denboraldian aplikatuko da; eta hurrengo denboraldian ere aplikatuko da, betiere lehenengo jarduera zinegetikoan animalia kutsatuak antzematen badira.

Komunikazioari buruzko neurriak:

Komunikaziorako eredu bateratua ezarri da, eta zehaztu egin da zein kasutan aplikatu beharko den lankidetzarako eta informazioa trukatzeko prozedura, osasun publikorako larriak eta berehalakoak diren arriskuek eragindako elikagai-alertak kudeatzeko.

Aurreko plana onetsi eta 7 urtera **beharrezkoa zen** plana berrikustea eta eguneratzea, besteak beste, dagozkion **lege-aldaketak gehitu ahal izateko**.

[Animalien Ongizatearen II Kongresuko aurkezpenak](#)

Espainiako Albaitarien Elkarteak (OCV) Animalien Ongizateari buruzko II. Kongresuko hitzaldiak argitaratu ditu. Kongresua azaroan antolatu zen Zaragozan.

Animalien babesa, bai hornidura-animaliena eta bai laguntza-animaliena, **geroz eta kezka gehiago eragiten duen gaia da, gizartean zein albaitarien artean**. Prozesu hori abere-ustiategietako animalien hazkuntza-baldintzetan hasi eta animalien garraio eta hilketan amaitzen da. Etapa horiek araututa daude Europa-mailan, nazio-mailan eta eskualde-mailan. **Gainera animalia-espeziearen araberako baldintzak daude, baita esperientzio-animalientzat, zientziarako erabiltzen diren animalientzat eta lan- eta laguntza-animalientzat ere**.

Hori dela eta, espezializazioa eta **ikerketa-maila geroz eta handiagoak dira, eta, horrekin batera, ezagutza, araudiak eta kontrol ofiziala**.

Beraz, aipatutako kongresuan gai horiek jorratu zituzten profesionalek hartu zuten parte. Aurkezpenak [erakundearen webgunean](#) kontsulta daitezke. Aurkezpen teknikoak eta kasu praktikoak landu ziren, baita gaiaren inguruko hausnarketak eta etorkizuneko ikuspegia ere.

Hona hemen konferentzia batzuk:

- **Esperimentazio-animalien eutanasia**
- **Oilo-eruleen** ongizatea
- **Arrain-hazkuntza:** hilketa

Sendagai antibiotikoen arau berria indarrean sartzten da

Abeltzaintza-ustiategietan agindutako antibiotikoak ezagutzeko beharrezkoa den informazioa eskuratze aldera, 2019ko urtarrilaren 2tik aurrera albaitariak agindu dituzten sendagai antibiotikoen errezetei buruzko informazioa bidali beharko dute Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren edo errezetaren hartzailea den ustiategia dagoen autonomia-erkidegoko agintari eskudunen sistema informatikoetara, % 100 elektronikoa den formatuan, joan den apirilean argitaratu zen [191/2018 Errege Dekretua](#) betetze aldera.

- Komunikazioa **hilerokoa** izango da.
 - Arau honetan xedatutakoa **giza kontsumorako diren elikagaietarako animaliei agindutako botikei aplikatuko zaie.**
 - Araua **ez zaie aplikatuko laguntza-animaliei** agindutako errezetei.
1. Albaitari guztiek sendagaia edo pentsu sendagarria jasoko duen ustiategia dagoen autonomia-erkidegoko agintaritza eskudunaren datu baseari jakinarazi beharko dizkiote **191/2018 Errege Dekretuko I. eranskinean adierazten diren gutxieneko datuak.**
 2. Datu baseari egindako komunikazio bakoitzean, antibiotikoak agindu dituen **albaitariak haren elkargo-zenbakia adieraziko du** errezeta bakoitzean.
 3. Halaber, **errezeta-zenbakia ere adierazi beharko da.**
 4. Errezeta jasoko duen abeltzaintza-ustiategia dagoen autonomia-erkidegoaren arabera, albaitariak Errege Dekretu berriak eskatzen duen **informazioa bidali beharko du autonomia-erkidego horretako agintaritza eskudunek ezarritako sistemetara, bai eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Ministerioaren sistemetara ere.**

Errege Dekretu horretan ezartzen diren **betebeharrak behin eta berriro urratzea arau-hauste larritzat hartuko da**, Animalien Osasunbideari buruzko 8/2003 Legearen arabera. Ondorioz, arau-hauste horiei dagokien zehapena ezarriko zaie, **3.001 eta 60.000 euro arteko isuna barne.**

Arau hau Europar Batasunean antibiotikoekiko erresistentzia sortzeko eta hedatzeko arriskua murrizteko ekintza- eta estrategia-planaren barnean sartzten da, honako hauen arabera: «[Europako Parlamentuaren 2011ko maiatzaren 12ko Ebazpena, antibiotikoekiko erresistentziari buruzkoa](#)», «[Europako Batzordearen 2011ko azaroaren 17ko komunikazioa, antibiotikoekiko erresistentziari aurre egiteko ekintza-plana ezartzen duena](#)», eta «[Europar Batasuneko Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 29ko ondorioak, antibiotikoekiko erresistentziaren eraginari eta gizakien nahiz animalien osasunaren esparrutik horri aurre egiteko moduei buruzkoak](#)».

Autonomia-erkidegoetako **agintaritza eskudunek** beharrezko **kontrolak egingo dituzte**, hala administraziokoak nola ustiategikoak, Errege Dekretuan xedatutakoa betetzen dela bermatzeko.

Europak ikuskatu egin du animalien ongizateari buruzko arauak betetzen diren ala ez

Europako Kontuen Epaitegiak **ikuskapena** egin du bost herrialdetan: Alemania, Frantzia, Italia, Errumania eta Polonia, **egiaztauzeko bete egiten dela animalien ongizateari buruzko araudia**.

Oro har, egiaztatu zen honako alderdi hauek ongi betetzen direla:

- **Txerri emeen** taldekako **hazkuntza**.
- **Oilo erruleei** dagokionez, ohiko **kaiolak** baztertzea.

Hala ere, araudia ez da betetzen honako arlo hauetan:

1. **Txerriei isatsa** moztea.
2. Distantzia luzeko **garraioa**.
3. **Burtzoratze-prozesuak** animaliak hiltzean.

[EEko Kontuen Epaitegiaren txostena](#)

Gainera, ikuskatzaileek uste dute **ez dagoela koordinaziorik NPBren finantza-baliabideei dagokienez**, nahiz eta ongizatearen ikuskapena behar bezala betetzen den Baldintzapekotasunaren bidez. Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) nekazaritza-ordainketak egiteko, animalien ongizatearen gutxieneko mailari eutsi behar zaio; landa-garapenerako politikak, berriz, maila altuagoak lortzera bultzatzen ditu nekazariak.

Azkenik, EEk **hainbat gomendio** egiten dizkio EERI, honako hauei dagokienez:

1. Animalien Ongizatearen **Esparru Estrategikoa**
2. **Neurriak modu eraginkorrean** gauzatzea
3. Animalien Ongizatearen eta **Baldintzapekotasunaren** arteko loturak sendotzea
4. Animalien Ongizatearen xedeak hobetzea **Landa Garapenerako** politikaren bidez

[Europako Kontuen Epaitegiaren prentsa-oharra](#)

Informazio-material interesgarria:

EBk gaztelaniara itzuli ditu ongizateari buruzko praktika egokien gidak hainbat animalia-espezieren **garraiorako**:

- [Behiak](#)
- [Txerriak](#)
- [Hegaztiak](#)
- [Zaldiak](#)
- [Ardiak](#)

[Gainerako materiala](#): garraio luzeak, hegaztiak maneiatzeko hiltzeko...

Europak albaitaritzaren sendagaiei buruzko arau berriak argitaratuko ditu

Europar Batasunak (EB) **aurki argitaratuko ditu hiru araudi berri**, eta horiek eguneratu egingo dute albaitaritzaren eta sendagai-pentsuen esparrua, honako xede hauekin:

- **Erresistentzia antimikrobianoari** (AMR) modu eraginkorragoan aurre egitea.
- **Sendagaien/sendagai-pentsuen** eskuragarritasuna eta segurtasuna areagotzea.

Zehazki, honako hauek dira Araudiak:

- [Albaitaritzaren sendagaiei buruzko Araudia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena](#)
 - 2001/82/CE Zuzentaraua baliogabetzen duena

- [Albaitarritza-pentsuen ekoizpenari, komertzializazioari eta erabilerari buruzko Araua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena](#)
 - 183/2005 Araudia (EE) aldarazi eta 90/167/CEE Zuzentaraua baliogabetzen duena
- [Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Araudia](#)
 - 726/2004 Araudia (EE) aldarazten du. Horren bidez ezartzen dira giza eta abere erabilerarako sendagaiak baimendu eta kontrolatzeko erkidego mailako prozedurak eta sortzen da Sendagaietarako Europako Agentzia 1901/2006 Araudia (EE) aldarazten du, erabilera pediatrikorako sendagaiei buruzkoa. 2001/83/CE Zuzentaraua aldarazten du. Horren bidez ezartzen da erkidego mailako kode bat giza erabilerarako sendagaiei buruz.

Aurreikusi da arau hauek **2018ko amaieran edo 2019ko hasieran argitaratuko direla** eta **3 urte geroago aplikatuko direla**. Bitartean, lege-egintza gehigarriak gauzatuko dira, zenbait alderdi zehatz babestu/osatzeko.

ZEINTZUK IZANGO DIRA BALDINTZA BERRIAK?

- **Debekatu egingo da sendagai-pentsuetan antibiotikoak pilaka erabiltzea** eta horien erabilera prebentiboa. Albaitariak pentsu horien errezeta egin beharko dute beti, aurre-azterketa egokia egin ostean.
- **Mugatu egingo da antibiotikoen erabilera neurri prebentibo gisa**. Kasu hauetan baino ezingo dira erabili: albaitari batek justifikatzen badu edo infekzio-arrisku handia badago.
- **Taldekako tratamenduak baimenduko dira, beti ere ez badago beste alternatiba egokirik** eta albaitari batek gomendatzen badu.
- Zenbait antimikrobiano **giza tratamendurako gordeko dira**.
- Albaitarritza-sendagaiak **ezingo dira inoiz erabili animaliak azkarrago haz daitezten**.
- Animalia-jatorriko produktuen inportazioaren bidez, AMRen hedapen-arriskuaren aurkako babesa hobetzen da; izan ere, **hirugarren herrialdeek bete egin beharko dute hazkuntza bultzatzeko antibiotikoak erabiltzeko debekua**.

Gaiari buruzko informazio gehiago:

- [Prentsa oharra](#) - EE, 2018/11/26
- [Galderak eta erantzunak](#) (ingelesez) - EE, 2018/11/26

Informazio-materiala:

- [FAOren informazio-orria](#)
-

Albaitaritzako antibiotikoen salmentak behera egin du European

Europako Medikamentuen Agentziak (EMA) argitaratutako txosten baten arabera, **albaitaritzan erabiltzeko mikrobioen aurkako medikamentuen salmenta orokorrak % 20 baino gehiago jaitsi dira European 2011tik 2016ra.**

Europar Batasunak (EB) emandako orientazioa eta animalietan antibiotikoak zuhurtziaz erabiltzeko kanpaina nazionalak eragin positiboa izaten ari dira. Horren erakusgarri da aipatutako txostena, 2016ko salmenten datu zehatzak aurkezten dituen; izan ere, bertan ikus daiteke **azken urteetan beheranzko joera nagusitu dela.**

Txostenaren azterketa

- **Polimixinak:**
 - **Ia % 40ko beherakada** egon zen polimixinen salmentan.
 - Multzo honetan sartzen da **kolistina**, beste antibiotiko batzuekiko erresistenteak diren infekzio bakterianoak dituzten pazienteetan azken tratamendu gisa erabiltzen dena.
- **Zefalosporinak:**
 - Hirugarren eta laugarren belaunaldiko zefalosporinen salmentek **% 15,4 egin zuten behera.**
- **Kinolonak:**
 - Kinolonen salmentek **% 13,6 egin zuten behera.**

SVACen txostenak agerian uzten du, halaber, **Europako egoera ez dela homogenea**; izan ere, datuak eman zituzten 25 herrialdeetatik 16k % 5 edo gehiagoko beherakada izan zuten salmentetan, eta sei herrialdek **% 5 baino gehiagoko gorakada erregistratu zuten.**

Zer da ESVAC?

Albaitaritzako Mikrobioen Aurkako Medikamentuen Kontsumoa Zaintzeko Europako Proiektua da, eta Europar Batasun (EB) osoan mikrobioen aurkako medikamentuak animalietan nola erabiltzen diren aztertzea du xede. Hain zuzen, EBko eta Europako Esparru Ekonomikoko (EEE), gehi Suitza, 30 herrialdeetako salmentei eta preskripzioei buruzko datuak ematen ditu.

- [ESVAC](#)

EMAk 2010eko apirilean ekin zion proiektu honi, Europako Batzordeak egindako eskaera baten harira. Batzordeak eskatu zion, hain zuzen, EBn eta Europako Esparru Ekonomikoan (EEE) **animalietan erabiltzen diren mikrobioen aurkako agenteei buruzko datuak biltzeko**

ikuspegi harmonizatu bat garatzeko.

ESVAC proiektuko parte-hartzea nabarmen hasi da; hasieran bederatzi herrialde ziren, eta gaur egun 30.

BSE araudia aldatzen da ardientzako

Aldatu egin da BSE (behien entzefalopatia espongi-formea) sindromearen araudia ardi eta ahuntzei dagokienez. Aldaketa horri esker, hilketa egin den estatu kideko agintaritzak eskudunak **onartutako metodo bat erabili ahal izango da animaliak hamabi hilabete baino gehiago dituen jakiteko.**

- [969/2018 \(EE\) Erregelamendua](#)

Zehazki, [999/2001 \(EE\) Erregelamendua](#)ren 1. puntuko b) letra aldatu da. Honela geratu da:

*“ardiei eta ahuntzei dagokienez: garezurra, garuna eta begiak barne, eta orno-muina, baldin eta animaliek hamabi hilabete baino gehiago badituzte edo haien hortzoian behin betiko ebakortzen bat atera bada, **edota hamabi hilabete baino gehiago badituzte hilketa egin den estatu kideko agintaritzak eskudunak onartutako metodo baten arabera**”.*

Arrisku-material espezifikoak

Behi, ardi eta ahuntzetan BSE arriskua ekiditeko neurri bat da **arrisku-material espezifikoak kentzea**. Ardi eta ahuntzen arrisku-material espezifikoaren zerrenda **999/2001 (EE) Erregelamenduaren V. eranskinean agertzen da**; zehazki, 1. puntuko b) letran.

EFSAk eta beste erakunde batzuek eginiko ebaluazio zientifikoetatik ondorioztatu denez, **ardi eta ahuntzetan soilik hamabi hilabete baino gehiago dituzten edo hortzoian behin betiko ebakortzen bat duten animalien garuna, begiak eta orno-muina hartu behar dira arrisku-material espezifikotzat.**

Hausnarkari txikien adina jakitea

Ardi eta ahuntzen hortz-haginak begiratuta haien **gutxi gorabeherako adina bakarrik jakin daiteke**; izan ere, espezie horietan lehen ebakortza ez da beti une berean ateratzen, hilabete batzuk gorabehera.

Europako Batzordeak uste du badaudela beste metodo batzuk hiltzera bidalitako ardi eta ahuntzen adina jakiteko, zeinak antzeko bermea ematen baitute animalia-aren adinari dagokionez. Metodo horiek aldatu egin daitezke estatu bakoitzean ardiak eta ahuntzak hiltzeko dituzten bideen berezitasunen arabera. Horregatik, metodoen fidagarritasuna hilketa egiten den estatu kideko agintaritzak eskudunak ebaluatu behar du.

Hori dela eta, 999/2001 (EE) Erregelamenduaren V. eranskineko 1. puntuaren b) letra aldatu egin da; hala, hilketa egiten den estatu kideko agintaritzak eskudunak onartutako metodo bat erabili ahal izango da animaliak hamabi hilabete baino gehiago dituen jakiteko.

Animalien ongizatea: Europako Batzordearen dibulgazio-materialak

Garraioa eta **hiltzea** dira animalien ongizatearen arloko funtseko bi elementu. Hori dela eta, Europako Batzordeak fase horietarako Lanerako Jardunbide Egokiak jasotzen dituzten dibulgazio-materialak argitaratu ditu.

Hiltzea

Bideoa: Hiltzerako unean animalia babesteko jardunbide egokiak (azpidatziak gaztelaniaz)

- [Oiloen harrapaketa nola prestatu](#)
- [Gizentzeko oilaskoen harrapaketa nola prestatu](#)
- [Eskortako hegaztiak garraiatzeko ibilgailua, gidaria eta karga nola prestatu](#)
- [Eskortako hegaztiak nola erabili](#)
- [Eskortako hegazkiak nola durduzatu. Ur-bainu elektrikoa.](#)

- [Behien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Hegaztien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Ardien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.

- [Zaldien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Txerrien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.

2017ko azaroan, **Europako Batzordeak Animalien Ongizaterako Europako Plataforma** sortu zuen. Plataforma horrek material hauek sustatzen ditu, eta honako alderdi interesdun hauen 75 ordezkari ditu: GKEak, zientzialariak, estatu kideak, Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) herrialdeak, nazioarteko erakundeak eta EFSA (Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritza).

Plataformaren **helburua** da elkarrizketa abiaraztea agintari eskudunen, enpresen, gizarte zibilaren eta zientzialarien artean, Europar Batasuneko herritarrei eragiten dieten animalien ongizateari buruzko gaiak lantzeko. Hala, hau lortu nahi da:

- EBko animalien ongizatearen arloko **arauak hobeto aplikatzea**. Horretarako, beharrezkoa da informazioa trukatzea, jardunbideak hobetzea eta alderdi interesdunak zuzenean inplikatzeko.
- Enpresek borondatezko **konpromisoak adostea** eta erabiltzea.
- EBko animalien ongizatearen arloko **arauak sustatzea** mundu osoan.

[**Animalien ongizatea: Europako Batzordearen dibulgazio-materialak**](#)

Garraioa eta **hiltzea** dira animalien ongizatearen arloko funtseko bi elementu. Hori dela eta, Europako Batzordeak fase horietarako Lanerako Jardunbide Egokiak jasotzen dituzten dibulgazio-materialak argitaratu ditu.

Hiltzea

Bideoa: **Hiltzerako unean animalia babesteko jardunbide egokiak (azpidatziak gaztelaniaz)**

- [Oiloen harrapaketa nola prestatu](#)
- [Gizentzeko oilaskoen harrapaketa nola prestatu](#)
- [Eskortako hegaztiak garraiatzeko ibilgailua, gidaria eta karga nola prestatu](#)
- [Eskortako hegaztiak nola erabili](#)
- [Eskortako hegazkiak nola durduzatu. Ur-bainu elektrikoa.](#)
- [Behien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Hegaztien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Ardien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Zaldien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.
- [Txerrien](#) garraiarako Ongizate Praktika Egokiak.

2017ko azaroan, **Europako Batzordeak Animalien Ongizaterako Europako Plataforma** sortu zuen. Plataforma horrek material hauek sustatzen ditu, eta honako alderdi interesdun hauen 75 ordezkari ditu: GKEak, zientzialariak, estatu kideak, Europako Esparru Ekonomikoko (EEE)

herrialdeak, nazioarteko erakundeak eta EFSA (Elikagaien Segurtasuneko Europako Agintaritza).

Plataformaren **helburua** da elkarrizketa abiaraztea agintari eskudunen, enpresen, gizarte zibilaren eta zientzialarien artean, Europar Batasuneko herritarrei eragiten dieten animalien ongizateari buruzko gaiak lantzeko. Hala, hau lortu nahi da:

- EBko animalien ongizatearen arloko **arauak hobeto aplikatzea**. Horretarako, beharrezkoa da informazioa trukitzea, jardunbideak hobetzea eta alderdi interesdunak zuzenean inplikitzea.
- Enpresek borondatezko **konpromisoak adostea** eta erabiltzea.
- EBko animalien ongizatearen arloko **arauak sustatzea** mundu osoan.